



**2026KO EKAINAREN 15EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita seiko ekainaren 15ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2026ko ekainaren 1ean egindako bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2026ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 41 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA HAMABOST MILA SEIREHUN ETA HOGEITA LAU euro ETA LAUROGEITA BAT zentimokoa (95.624,81 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- BEGIRIZTAIN UBIDEA BIDERATZEKO PROIEKTUAREN 1. FASEA GAUZATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Udal honen eskariz, Endara Ingenieros Asociados, S.L.-ko Igor Martín Molina ingeniariak, Begiriztain erreka berriz bideratzeko proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Begiriztain errekatik euri asko egiten duenean gainezka egiten duten urak biltzeko eta bideratzeko gainazaleko sare bat egiteko proiektuaren 1. fasea gauzatzea.

Proiektu honen aurrekontua 131.941,23 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintzako Informazio Batzordearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Begiriztain ubidea bideratzeko proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espediente onartzea eta prozedura ireki sinplifikatu bidez lizitazio deialdia egitea.

IV.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-03 zenbakidun esped.: Astean 14,5 ordutik 17 ordura pasatzea ekainaren 1etik aurrera, onuradunak laguntza gehiago behar duelako. Onuradunaren ekarpena % 2koa izango da.
- 26-11-03 zenbakidun esped.: Etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea ekainaren 12tik aurrera astean 4 ordu etxeko garbiketan laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 21ekoa da.
- 26-11-05 zenbakidun esped.: Etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea maiatzaren 20tik aurrera astean 9 ordu laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena % 2koa da.
- 26-11-06 zenbakidun esped.: Etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea ekainaren 11tik aurrera astean 2 ordu etxeko garbiketarako. Onuradunaren ekarpena % 2koa da.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.-

- 25-01-002 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako laguntza bajaran ematea ekainetik. Bizikidetza unitatean aldaketak egon direlako.
- 25-01-008 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako laguntza bajaran ematea ekainetik. Bizikidetza unitatean aldaketak egon direlako.
- 26-01-002 zenbakidun esped.: alokairu gastuetarako hilean 165€ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura eta etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 99€ko dirulaguntza ematea apiriletik abendura. Eman daitekeenaren %66a da.

Udal tasa eta zergen laguntzak.-

- 26-16-01 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 259,83 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.
- 26-16-02 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 465,78 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-03 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 419,02 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.



LAZKAOKO UDALA

- 26-16-04 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 274,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren %100koa da.
- 26-16-05 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 504,45 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-06 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 437,61 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.
- 26-16-07 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 455,07 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.
- 26-16-08 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 149,35 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-09 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 479,36 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-10 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 252,80 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.
- 26-16-11 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 810,28 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-12 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 76,01 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-13 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 114,19 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-14 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 630,82 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-15 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 258,67 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 50koa da.
- 26-16-16 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 472,20 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-17 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 661,58 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-18 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik laguntza ukatzea baldintzak ez betetzeagaitik.
- 26-16-19 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 610,58 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.

- 26-16-20 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik laguntza ukatzea, dokumentazioa epez kanpo aurkezteagatik.
- 26-16-21 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 100,56 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-22 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik laguntza ukatzea baldintzak ez betetzeagatik.
- 26-16-23 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 380,22 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 50koa da.
- 26-16-24 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 323,97 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.
- 26-16-25 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik laguntza ukatzea baldintzak ez betetzeagatik.
- 26-16-26 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 414,81 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-27 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 504,34 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-28 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 460,93 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-29 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik laguntza ukatzea udalean zorra duelako.
- 26-16-30 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 146,52 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-31 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 464,14 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-16-32 zenbakidun esped.: Udal tasa eta zergengatik 370,80 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 75koa da.

Donostiako Elizbarrutiko Misio Ordezkaritza - RWANDA.-

Ondorengo proiektuentzat 16.000,00 €ko dirulaguntza ematea: Rwandarwejon (Gihara 2026) eskolatu gabeko haurrak eskolatzea; Masakako eskolarako urteko funtzionamendua eta josteko makinak erostea, bi fotokopiagailu erostea, bi garbiketa-gune eraikitzea, bi sukalde berritzea, 22 gela egokitzea; eta Giharako ur-sarearen iturburuan ur-ponpa berri bat instalatzeko proiektua.

Gizakia Helburura joateko garraiorako diru laguntza.-



LAZKAOKO UDALA

- 26-23-02 zenbakidun esped.: Gizakia Helburura egin dituen garraio gastuak ordaintzeko ondorengo diru laguntza ematea:
 - Apirila: 300,00 €.
 - Maiatza: 300,00 €.

Familia laguntzak.-

- 26-15-01 zenbakidun esped.: Balorazio esku hartze familiarra 5.295,00 €koa da.

Kulturako eta denbora libreko jarduera eta ikastaroetako tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 25-24-21 zenbakidun esped.: maiatzeko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 25-24-02 zenbakidun esped.: maiatzeko marrazketa ikastaroa ordaintzeko 29,50 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 25-24-04 zenbakidun esped.: maiatzeko robotika ikastaroa ordaintzeko, bi seme alabengatik, $40,00 € \times 2 = 80,00 €$ dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-24-01 zenbakidun esped.: maiatzeko robotika ikastaroa ordaintzeko 40,00 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.
- 26-24-02 zenbakidun esped.: maiatzeko robotika ikastaroa ordaintzeko, bi seme alabengatik, $40,00 € \times 2 = 80,00 €$ dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100koa da.

Joxemiel Barandiaran udal kiroldegiko bazkietza jarduerengatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko laguntza ematea.-

- 26-23-02 zenbakidun esped.:
 - 1.- 3. adinekoentzako soinketa ikastaroa ordaintzeko apirileko laguntza ukatzea, asistentzia maila ez betetzeagatik.
 - 2.- 3. adinekoentzako soinketa ikastaro ordaintzeko maiatzeko laguntza onartzea eta 34,25 €ko dirulaguntza ematea. Eskatutakoaren % 100a da.

V.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2025/2026 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Ikasle bat izan da eta emango zaien kopurua 366,00 €koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2026ko aurrekontuaren 480.01.335.00 partidatik.

Euskarako eskoletara joateagatik dirulaguntzak arautzeko deialdia.-

Norgehiagoka-erregimenean euskarako eskoletara joateagatiko dirulaguntzen 2026-2027 ikasturterako deialdia aurkeztu da bere onarpenerako.

Deialdiaren testuak honela dio:

**"EUSKARAKO ESKOLETARA JOATEAGATIK
DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2026-2027 IKASTURTERAKO.**

1. artikulua. Xedea.

Laguntza hauen deialdi honen xedea da 2026-2027 ikasturtean euskarako eskoletara joateagatik laguntza ematea.

2. artikulua. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura.

Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 5.000 eurokoa izango da, eta hori 2026. urterako Lazkaoko Udalaren Aurrekontu Orokorren honako partidatik egingo da:

1.480.01.335.00 zbki.dun partida, «Euskara: euskara ikasteko diru laguntzak.» .

3. artikulua. Ezargarri den araudia.

Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa; Diru laguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa; Lazkaoko Udalak diru laguntzak emateko ordenantza orokor arautzailea, udal osoko bilkurak 2017ko otsailaren 28an onartutakoa; eta euskarako eskoletara joateagatik eta gida baimena euskaraz ateratzeagatik laguntzak emateari buruzko berariazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2022ko maiatzaren 23an onartutakoak.

4. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea.

4.1. Dokumentazioa:

- a) Diru laguntza-eskabide normalizatua, beteta eta sinatuta.
- b) NAN dokumentuaren fotokopia.
- c) Banku-erakunde baten egiaztagiria, eskatzailea kontu baten titularra dela adierazten duena.
- d) Ikastaroaren matrikulazio orria.
- e) Egindako gastua justifikatzen duen faktura orijinalak.
- f) Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko ordainketak egunean izatearen ziurtagiriak.



g) Desenplegu-egoeran dagoela edo ikasten ari dela egiaztatzen duen ziurtagiria, eta nomina edo pentsio gisa jasotzen duen dirua lanean ari den ala ez adierazten duen ziurtagiria.

4.2. Eskariak aurkezteko epea:

2026-2027 ikasturte osoan zehar.”

Hau honela, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, 2026-2027 ikasturterako euskara eskoletara joateagatik dirulaguntzen deialdia onartzea erabaki du.

VI.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Gerriko Kultur Elkarteari.-
2026ko San Prudentzio jaietan bakailau lehiaketa antolatzeagatik 3.113,50 €tako dirulaguntza ematea.
- Zawopi Taldeari.-
2026ko Errege Kabalgata eta Astotxo antzezlan antolatzeagatik eta gastuak estaltzeko falta diren 2.662,20 €tako dirulaguntza ematea.

VII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzordeak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-
Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2026ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatariek bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien bigarren ordainketa egitea proposatzen da:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.685,00	671,25
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	1.050,00	262,50
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.495,00	623,75
LEIRE VELASCO (LEIRE ESKULA)	285,00	71,25
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	950,00	237,50
NAGORE COLORADO (MANAKO)	1.770,00	442,50
OREKA OKINDEGIA SL	235,00	58,75
LIERNI FERNANDEZ (NARE)	170,00	42,50

GERRIKO SL	275,00	68,75
AMAIA SORAZU (ekilore)	295,00	73,75
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	1.315,00	328,75
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	3.215,00	803,75
KEPA ORTUONDO (GARAIZ)	4.360,00	1.090,00
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	750,00	187,50
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	820,00	205,00
RAKEL OIARBIDE (EIRE ILEAP.)	370,00	92,50
EIDER LUNA (STYLO ILEAP.)	705,00	176,25
IDOIA GODOY ATXAGA (FARMAZIA)	1.490,00	372,50
LIERNI FERNANDEZ (NARE)	230,00	57,50
LEIRE VELASCO (LEIRE ESKULA)	415,00	103,75
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	475,00	118,75
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	2.070,00	517,50
OREKA OKINDEGIA SL	160,00	40,00
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	300,00	75,00
GERRIKO SL	95,00	23,75
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	1.795,00	448,75
GUZTIRA	28.775,00	7.193,75

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio, eskaera bat erregistratu dutela joan den ostiraleko isuriari buruzkoa. Partzuergoari txosten bat egin dezaten eskatzen dio udalari hainbat datu jaso ditzan.

Alkateak azaldu du, Zubierrekako enpresa batetik izan zela isuria, materiala urarekin nahastuta behar ez den tokitik joan zela eta errekan amaitu zuela. URA ari da hori aztertzen eta eragin larririk ez dela izan aurreratu digute ahoz, beraiekin izandako bileran. Txostena egiten ari dira. Udalak txosten hori eskatu die.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.

